

Joxe Azurmendi

Idazlea

Manifestu komunistaren 150. urteurrena

■ Aurten egiten du ehun eta berrogeita hamar urte Marx eta Englesen Manifestu Komunita Londresen inprimatu zela, 1848ko iraultzaren urtean, iraultza baino lehentxeago hain zuzen, 45 orrialde besterik gabeko idazki txikia, eta hala ere emantzipazio mugimendu sozialetan sekula egon den testu sonatuena eta zabalduena mundu guztian.

Berdin da inspirazio marxistakoak izan ala ez, Manifestuak lehen bat eta gero bat markatu du edozein koloretako mugimenduentzat langileriaren historian.

Kapitalismo gotztiararen produkzio moldea, XVI. mendetik XVIII.aren hondarrera, manufaktura izan da. Lantokitxo batean, hainbat artisauk beren produktua ekoizten zuten, kapitalista baten esanetara, askotan merkataria bera izaten zena. (Orainsu arte ezagutu da hori herri batzuetan, espartinak egiteko adibidez). Artisau honek, lantokian nahiz etxean lanegin, produktu osoa berak eta bakoitzak berea egiten zuen oraindik. Hurrengo aro batean produkzio-prozesua berezitu eta banatu egin da, eta produktua elkarlanaren emaitza da: langileak ez du operazio txiki bat baizik egiten, eta taldeko guztien operazioen batuketak ekoizten du produktua. Langilea, autore indibiduala izatetik, funtzio baten euskarri soilia izatera pasatzen da produkzio prozesuan, eta taldea da produkzioaren subjektu zinezkoa. Gero, iraultza industrialaz, XVIII. mendetik XIX.erako tartean, produziotasuna makinak hartu du bere esku: kapitalistak makinari irabazi ahalik handiena atera behar dio, eta langileak —gizonak, emakumeak, haurrek, denak— makinari zerbitzen ahaletzen dira txinariak bezala, «makinak» ahal duen guztia ekoizten dezan. Makina da produkzioaren zinezko subjektua eta gizon-emakumeak haren morroi bilakatu dira.

Langileriaren aurreko protesta modua makinak apurtzea eta lantegiei su ematea izan da. (1769an Parlamentu britainiarrek lege eman du makinak apurtzea eta lantegietan kalteak eragitea heriotzarekin zigortuz). Poliki-poliki langileek, Marxek esango duen bezala, makinak eta makina-jabeak bereizten ikasi beharko dute, beren haserre makinaren aurka eraman ordez, haiekin berak ustiatzen zituztenen aurka zuzentzeko.

Borroka politikoa egiteko erakundeetan elkar-tzen hasi dira orduan langileak. Estreinko borroka,

elkartzeko eskubidea lortzeko izan da. Giza Eskubideen interpretazio liberal burges arras indibidualistak ez baitzuen sindikaturik eta inolako langile elkargorik ametitzen. Askatasunak indibiduoaren askatasuna esan nahi zuen. (Norbait ez ote dabilki? gu garai haietara itzuli nahirik?). Produktore txiki ahalik eta ugarienen askatasuna oroz gain Osasun Publikoaren Komite iraultzaileak 1791ko ekainaren 14an dekretua eman zuen «giza eskubideen defentsan», langile eta apendizaren elkargo guztiak «askatasunaren aurkako atentatu» gisa debekatu. Urte askoan langile erakundeek klandestinoak izan beharko dute Frantzia. Ingalaterran 1824an kendu da debekua, baina ez da tranpa bat besterik izan: enpresariak orain ezagunak ziren langile sindikalistak kalera bota dituzte. Langileak berriro klandestinioki eratu direnean, polizia konspirazioagatik atxilotu ditu.

Beste irtenbiderik gabe, praktikan eskubidegabe-ko langile hauen borroka, boz eskubide orokorra lortzera jo du, lan munduan ere horrela legegintza sozialago bat demokratikoki bideratu ahal izateko ustean. Europa osoan borroka demokratiko erradikala artisau eta langileena bilakatu da, intelektual erradikal batzuekin batera. Burgesia, eskubide indibidualista huts-hutsen defentsaren aitzakiaz armaturik, langileriaren erakundetzea oztopatzen saiatu da. Eboluzioaren puntu honetan agertu da Marx, langileak ez indibiduo, baizik klase bezala ulertuz; langileen borroka, ez eskubide natural razionalista batzuen bezala, gutxiago ebanjelioko mezuarena, historiaren esjientzia batena baizik; eta langileen erakundetzea nazioartekotuz. Utzi «eskubide naturalen» filosofia abstraktuak. Orduan arteko planteamoldeak eten eta: zergatik dago, dagoena; zer ekarri behar du honek, itaun du Marxek. Bilakaera historikoaren arrazoia. Arrazoi horretan produkzioari eta langileriari dagokion lekua. Kapitalismoak irabazi du, esaten du Marxek, beraz, historiaren martxan hurrena bera hil behar izateko kondenuatu du bere burua. Zein izango da hurrengo sistema?

Pentsamendu berri hori laburbiltzen du Manifestu Komunitak. Lehenengo aldiz hortxe garatu da pentsamendu bat propio langileriaren egoera eta zereginaren gogoeta bezala, ez iraultza burgesaren apendiz bezala. Munduan gehiena itzuli eta zabalduko testua berau omen da, ebanjelioekin batera. ■

Luis Fernandez



Alatriste

Kandelaren argitan, gutunazalaren gainean lakre gorria erre eta isuri du Richelieuk, bere jauregiko gela gordeanean. Jarraian, zerbitzariak egunean mila bider miakatzten dioten eraztunarekin zigilua utzi du lakrean, gutuna jaso behar duenak soilik hautsi beharko duen marka pertsonala.

Zoaz, eraman zazu, esan dio Erromako ordez-kariak gutuna eraman behar duen zaldunari, Mikhail Strogoff lerdinari. Errusiako ofizialerik galaiena ilargirik gabeko gau ilun horretan abiatu da, zaldi zuriaren gainean, eginkizunaren konplizera. Basoak eta zelaiak zeharkatu ditu ilunpetan, eta egunsentiariekin, zaldi gaixoari erreka-zuloan ura emateko baizik ez du atseden hartu. Egunez ere berdin segitu baitu, aurrera. Bigarren gaueko ordea, nekeak irabaziko duela susmatu du Strogoffek, eta erresumako mugaldeen aurkitu duen etxalde batean ostatu hartu du.

Ukuiuetan utzirik animalia, sakelean gorderik gutuna, ostatura joan da, sabela mama goxoren batekin betetzera. Bidaia iri galduren batzuk ikusi ditu, eta hara, aspaldiko ezagun bat. Flandriako lubakietatik ote? Balaklavako erasoan? Hi hemen!, esan dio besteak, hark berehala ezagutu baitu. Ez nauk ezagutu? Alatriste nauk, gizona. Kontxo, hau sorpresa, zer egiten duk ba hemen, orain ere Espainiako Koroaren zerbitzuak ekarriko hinduen gero ostatu galdu honetara? Ez, ez: gaur bederen senar jeloskor batenganik ihesean nabilek... Eta edaten hasi dira armagizon biak, txanda bat, beste bat... Utzidak hau ordaintzen, gaztelau demonioa; baina, ez, Alatriste kapitainak ez dio uzten Strogoffi, eta behin eta berriro agintzen ditu pitxarrak, bere kontura direla eta edateko, edateko lasai.

Ardoaren poderioz loak mahaian bertan harrapatu du Strogoff. Alatristeren ordua da orain. Ukuiura doa, eta han aurkitu du, zaldiaren sakelean, kardinalarean gutuna. Kanpora irten eta Movilinetik deitu du ugazabari. Jauna, harrapatu dugu Richelieu. Batzuek ez zakitek zein mundutan bizi diren, erantzun dio ugazabak.

Kornerra

Mikel Elorza

Burla gaiztoa

■ Komunikatu gabeko manifestazioa egiteagatik Denon Artean elkarteari isuna ekar lezakeen espeditentea zabaltzea aztoratu egin ditu gutxienez IU eta PP. Ez da gutxiagorako. Zuzenbideetik baino polizi-estatutik hurbilago dagoen *Cocruera Legearen* aplikazioa da. Ni ere aztoratu nau. Eta aztoratu ordez amorratu, espeditenteak berak baino, notizia izateak; horrelakoxe espeditenteak lehen ere dozenaka baitaude zabalik, isun latzak ezarrita. Baina intsumisoak. CNTkoak, presoen sendeak, HBkoak... Orduan ez da notizia. Ez da aztoragai. Areago, Barne Sailak diseinaturiko estratergiaren ondorio izan da. Isun handiak ezarri, *inguru* horietako herritarren patrikak zigortu, komunikabideetan oihartzunik izan gabe (ertzainen bat Denon Artean-ekin *despistatu* den arte).

Cocruera Legea beldurgarria da. Barne Sailak egiten duen aplikazioa makurra, sasikoa, zuzenbidearen aurkakoa. Eta hori salatu eta borrokatu beharrean, besteak ahaztuz Denon Artean-i tokatu zaionean aztoratzea burla, burla gaiztoa.

Martin

L A P h I T Z A

